

2013-2014 IKASTURTEA



PARTAIDEAK: Migrazio eta aniztasun saila, Ordizia Kolore eta Jakintza Ikastola.

NORI ZUZENTZEN ZAIO: 4. mailako ikasleei, Ordizia koloreko kideei, ikasleen senitarteko edo ezagunei.

DATA: 2014ko maiatzaren 9an eta ekainaren 13an

HELBURUAK:

- Jatorri ezberdinetatik etorritako ordiziarrei elkarrizketa egitea eta elkar ezagutzea.
- Ordizian bizi diren jatorri ezberdinetako pertsonen egoera, bizi esperientziak ezagutzea eta hauekiko errespetua adieraztea.
- Ordizian elkarbizitzen diren ordiziarren jatorri ezberdinez jabetzea.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Ikasleek Ordizian elkarbizitzen diren kultura ezberdinak ezagutzeko, jatorri ezberdinetako herritarrak Jakintza ikastolara joan dira ikasleekin hitz egitera. Honela, ikasleek elkarrizketa ezberdinak antolatu dituzte hauen bizi esperientziak ezagutzeko. Azkenik, jasotako informazio guztiarekin mural batzuk egin dituzte, ondoren herritar hauei oparituz.

BALIABIDEAK:

Lengua Castellano proiektuan oinarritua (Ordizian bizi diren, baina beste herrialde batetik etorritako pertsonen elkarrizketa):

- Galdeketa gidoia.
- Ordenagailuak.
- Erantzunak jasotzeko fitxak.
- Argazki/bideo kamerak.
- Informazioa bildu eta aurkezteko muralak.

Hau guztia aurrera eramateko, ikastolako aretoa (aurkezpena egiteko), ikasgelak (elkarrizketak egiteko), Barrena Kultur etxeko batzar aretoa (bildutako informazioaren eta muralen aurkezpena egiteko).

BALORAZIOA:

Maiatzaren 19an etorkina ikastolara hurbildu dira eta bertan, ikasleek inguruan bizi diren etorkinak ezagutu dituzte: euren migrazio arrazoi ezberdinak eta euren egungo egoera zein den ezagutuz.

Ordizia Koloreko kideak protagonista izan ziren eta gustura aritu ziren ikasleen galderak erantzuten.

Ekainaren 13an berriz, Barrenan elkartu ziren muralen aurkezpena egiteko eta oso aberasgarria izan zen bai ikasle zein etorkinentzat.

Oso esperientzia positiboa guztiontzat. Bizipenak, esperientziak, ohiturak, sentipenak... elkarbanatu baitzituzten.

2014-2015 IKASTURTEA



ORDIZIA KOLORE ESKOLETAN

ARDURADUNA: Ainara Ormaetxea (Migrazio saila)

PARTAIDEAK: Jakintza Ikastola (DBH 1) eta Oianguren Institutua (DBH 2)

Partaideen kopurua: Jakintza (70 ikasle + 3 Ordizia Kolore) eta Oianguren (6 ikasle):

Jakintza (ikasleen datua jaso gabe eta Ordizia Kolore: 2 emakume eta gizon bat).
Oianguren (ikasleak 3 mutil eta 3 neska).

Hartzailearen adina: Irakasleak + Ordizia Kolorekoen artean: gazteak eta helduak.

DATA:

Oianguren Institutua: Martxoak 4

Jakintza Ikastola: Maiatzak 19 eta 20.

HELBURUAK:

Jakintza: Beste lurraldeetatik gurera bizitzera etorri diren etorkin berriak gertutik ezagutu.

Oianguren: Migrazioen fenomenoak eta bere eraginak ezagutzeko proposamena egin Migrazio Sailari

Landuko diren balioak:

- Jatorri ezberdinetako pertsonen arteko elkar ezagutza.

Migrazio fenomenoaren inguruan hausnartzeko interesa.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

- Jakintza: Jakintza ikastolak, Jolas eta Ekin enpresaren bitartez garapenerako hezkuntza lanak egin zituen. Bertan, beste lurraldeetan jaiotako ordiziarren bizi istorioak gertutik ezagutu nahi ziren eta Ordizia Koloreko kide batzuk bertan parte hartu zuten. Kasu honetan, Nepalgo lurrikara pasatu berri zenez, hiru nepaldarrek parte hartu zuten.

- **Oianguren:** Sei ikasle (DBH 1 gelatako ordezkariak) Migrazio teknikariarekin hitzordu bat egin zuten lurralde desberdinetako kulturak ezagutzeko proposamenak sinatuta ekarriz. Bide batez, bilera horretan, errealitate honi buruzko interesa adierazi eta elkarlanean aritzeko proposamena atera zen. Geletako ordezkariak proposamena luzatuko zuten eskolan. Ondoren, ez ziren bilera gehiago egin.

METODOLOGIA ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

- **Jakintza:** Jolas eta Ekinekoak Migrazio Teknikariarekin jarri ziren harremanetan herriko etorkin batzuekin harremanetan jartzeko. Hiru nepaldarrak beren istorioa kontatu zuten.
- **Oianguren:** Lehenengo DBHko irakasle bat eta Migrazio Teknikaria bildu ziren ikasleen motibazioaren berri adierazteko. Ondoren, ikasleen ordezkariarekin bilera bat egin zen.
-

BALORAZIOA:

Jakintza: balorazio positiboa izan zen, edozein kasutan, beraiek edukiko dute ofizialki jaso. Ordizia Koloreko kideak baloratuak sentitu ziren ekimen honen ondoren. Gainera, solasaldiarengatik jasotako dirua Nepalera bidaltzeko izan zen.

Oianguren: Momentuan oso positiboa izan zen, bereziki, ikasleek izandako iniziatiba bat izan zelako. Hobetzeko geratu dena, jarraipen bat ematea izan da.

HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Migrazio saila eta eskolen artean, kultur aniztasuna eta elkarbizitza eskoletan gehiago lantzeko hutsunea.



ORDIZIA KOLORE

ARDURADUNA: Ainara Ormaetxea

Garagunea (Goyeneche Fundazioa),

MINTZALAGUNA: Partaideak: Garaguneko erabiltzaile bat (gizonezkoa),
boluntario bat

BAZKARIA: Partaideak: Garaguneko 6 erabiltzaile (5 emakume eta gizonezko bat),
2 profesional

Data: 2015eko Ekaina

BALIABIDEAK:

Mintzalaguna: Zuhaitziko kafetegia

Bazkaria: Elkarre bateko instalakuntzak, eta guztien artean eramandako janariak

BALORAZIOA:

Mintzalaguna: Garaguneko erabiltzaileak ohituta daude beste pertsona batzuen laguntza jasotzen. Kasu honetan, hori lortzeaz gain (boluntario bat joaten da bere bila garagunera, ondoren Zuhaitzira joateko), bera bihurtzen da mintzalaguna, beste batzuei gaztelera ikasten laguntzeko.

Horrek beste "rol" bat betetzeko aukera ematen dio.

Bazkaria: Herrialde desberdinetako pertsonak elkartzea beti da aberatsa. Batzuk ezagunak genituen, praktikak gurekin egin zituztelako. Emakumeak dira gehienak, eta haurrak ere parte hartzen dute ekintzan.

Disfrutatzen dugu guztiok kultura desberdinetako produktu eta janariak dastatzean.

Garaguneko erabiltzaileak mahai mutur batean esertzen dira, Ordizia Koloreko partaideekin nahastu gabe, eta hori dela eta, harreman handirik ere ez da ematen beraien artean.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Bazkaria: Aurtengo kurtsoko plangintzan sartu ekintza hau, eta hobeto dinamizatu partaideen arteko komunikazioa eta harremana indartzeko.

OHARRAK: Garagunekoek Hiri Hezitzaileen 16. pirntzipioarekin lotu dute.